

Euskararen transmisioa: irabaziaz eta galtzeak

Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza da, 3 urte arte etxean mintzatu den hizkuntza. Iparraldean euskara bakarrik edo frantsesarekin %25, frantsesa bakarrik %75. Ezberdintasun handiak badira eskualde batetik bestera. Euskara nolazbait lehen hizkuntza dutenak %11 dira BABn, %27 Lapurdi barnean, %61 Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Lehen hizkuntza eskualdeka eta adinaren arabera (%)

Adin-taldeak Jendetza	Iparralde 238.360	BAM 98.899	Lapurdi 106.879	N-B + Z 32.582	65 eta + 62.266	16-24 26.964
Lehen hizkuntzak						
euskara	20	9	20	51	30	8
euskara + frantsesa	5	2	7	10	6	6
frantsesa	75	89	73	39	64	86

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Lehen hizkuntza adinaren arabera aztertzen bada ikusten da, 3 urte arte etxean euskaraz bakarrik mintzatu direnen gain behera doala zaharrenetarik gazteenetara %30etik %8ra. Jatorriz frantsesez mintzatu direnen kopurua petik gora %64tik %86ra. Hautzaroan bi hizkuntzak erabili dituztenen heina berdintsu egon da adin-talde oroz, %6 inguru. Zer gertatzen da ama hizkuntzarekin ? Edo jarraipena edo aldaketa.

Hizkuntza gaitasuna lehen hizkuntzaren arabera

Elebidunentzat, lehen hizkuntzaren arabera oraingo hizkuntza gaitasuna definituz, tipologia berri bat sortzen dugu.

- Lehen hizkuntza euskara edo biak eta orain euskaldun: jatorrizko euskalduna
- Lehen hizkuntza frantsesa eta orain euskaldun: euskaldun berria.
- Lehen hizkuntza frantsesa eta orain erdi-euskaldun: euskalduntzen.


Ipar Euskal Herrian ama hizkuntzaren jarraipena da nagusi. Euskaraz sortu direnak euskaldun dira %70. Jatorrizko euskaldunak dira, "euskaldun zaharrak". Frantsesez sortu direnetan, %11 euskaldun berri bilakatu dira eta %19 euskalduntzeko bidean dira. Beraz jatorrizko erdaldunentzat ere jarraipena da nagusi (%67).

Zer agertzen da euskaldeka? Orotan jatorrizko euskaldunak gehiengoan, bereziki Nafarroa Behere-Zuberoan (%86) eta Lapurdi barnean (%66), bai eta ere BABn %57. Euskaldun berriak askoz gehiago BAB (%31) ezinez eta Iparralde barnean (%9).

Hizkuntzen bilakaera eskualdeka eta adinaren arabera %

Hizkuntzen bilakaera	Iparralde 63.202	BAB 12.404	Lapurdi 32.162	N-B. Z. 18.637	65 eta + 21.441	16-24 7.175
Jatorrizko euskaldunak	70	57	66	86	87	40
Euskaldun berriak	11	12	14	5	2	25
Euskalduntzeko bidean	19	31	20	9	11	34

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.



Euskararen transmisioan ezberdintasun handiak ageri dira adin-taldeen artean. Zaharrenetan jatorrizko euskaldunak %87, euskaldun berriak %2 eta euskalduntzen ari direnak %11. Gazteenetan arabera gero eta jatorrizko euskaldun gutiago (%40), euskaldun berri gehiago (%25), euskalduntzeko bidean direnak %34 dira. Beraz adin-taldea zaharrenetan kasik elebidun guziak jatorrizko euskal

dunak dira. Aldiz adin-taldea gazteago eta euskaldun berri gehiago eta euskalduntzen ari direnak are gehiago.

Ondorioz itxarpena haizu da. Kasu! Badakigu jatorrizko euskaldunak direla euskaraz errexki mintzo direnak eta euskara frantsesa bezainbat edo gehiago erabiltzen dutenak. Halere asma dezakegu datozen adin-taldeetan 3 elebitasun motak hein berdintsuan izanen direla. Ez ote da euskaldungo modernoaren argazkia, BABn ageri den bezala?

Euskararen irabazi-galtzeak 16-25 urtekoetan

Adibidetzat har ditzagun 16-24 urtekoen zenbaki gordinak. 27.000 dira.

Zer gertatu da euskararekin?

Hiru urtetan 3.600 euskaldun ziren (%13). Gero zer bilakatu dira ?

3.000 betiko euskaldun, 2000 euskaldun berri, 2000 euskalduntzen ari.

16 urtetan 7000 eukaldun eta elebidun hartzaile.

Euskaldungo dinamikoa haurretarik gazteetara %13tik %27ra igan da. Bikoiztu da. Zer gertatu da frantsesarekin?

Hiru urtetan 23.000 erdaldun ziren (%87). Gero zer bilakatu dira ? Gehiengoa erdaldun egon da. 2.000 euskaldun dira eta beste hainbeste euskalduntzen ari. Ondorioz erdaldungo elebakarra haurretarik gazteetara %87tik %73ra jautsi da.

Hizkuntzen bilakaera Iparraldeko gazteenengan

<i>Lehen hizkuntza</i>	<i>Hizkuntzen bilakaera 2011n: 16-24 urtekoak</i>	<i>Ondorioak</i>
Euskara 1.H 3.610 = %13,4	Euskaldunak + Euskaldun + Euskalduntzen jatorriz berriak ari direnak 2.925 + 1.822 + 2.438	Euskaldungo dinamikoa = 7.185 = %26,6
Frantsesa 1.H 23.354 = %86,6	Erdaldunak + Erdaldun + Erdalduntzen jatorriz berriak ari direnak 19.093 + 77 + 618	Frankofonia elebakarra = 19.788 = 73,4 %
Hiztunak orotara 26.964 = %100		Hiztunak orotara 26.964 = %100

Gazteengan hizkuntzen bilakaera euskararen alde mugitu da molde indartsuan. Haurtzarotik gaztarora euskaldunen heina bikoiztu da eta erdaldunen heina araberan gutitu (-13%).

Zer da euskaldungo dinamikoa? Euskaldun berri anitz eta erdalduntzerik ez. Euskalduntzen ari direnak erdalduntzen ari direnak baino lautan gehiago. Ikusi beharko da datorren belaunaldian eskolako dinamikaren bidez familiako transmisioa berpiztuko denetz.

Erramun Bachoc, 2012-12-03, baxok@wanadoo.fr